

“Anonimoaren mozorropean edozer esaten da eta edozeinez”

Iban Arantzabal | XXI. mendeko euskaldun errotua

Elgetan sortua eta bertako

Espaloia Kafe Antzokiaren sortzaileetakoa. Sustatu web gunea berak asmatu zuen. Goiena komunikazio taldeko telematika zuzendaria da Arrasaten.

FERMIN ETXEGOIEN

Argazkia: Dani Blanco

Sustatu web arrakastatsuak aberastu al zaitu?

Bai, dudarik ez. Aberastu du euskal komunitatea eta aberastu nau ni ere. Nabigatzen nuen, baina Sustaturekin nabigazio aukerak egiten ikasi dut, edukia aukeratzen.

Sekulako astakeriak bidaltzen dizkizute: lan gustagarria al da zentsorearena?

Derrigorrean egin beharreko lana izan da. Anonimoaren mozorropean edozer esaten da eta edozeinez. Irakurleari interesatzen zaio kritika eraikitzailea izatea, gainera. Gai-nontzekoa zarata da, kaka!

Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak aberastuko zintuen orduan...

Bai. Diruak aberas dezakeena baino askoz gehiago. Kasu honetan zaratarik ez, soinua da jasotzen dudana guztia. Izu-garri ikasten dihardut Espaloian, lan talde humano hau hain da ona... Demasa da zinea izatea Elgetan, antzerki lanen estreinaldiak, kalitateko musika, umeen emanaldi bat, herriko musikariak taula gainean, doako wifi gunea, musika entzuteko eta egoteko leku erosoak... Erabiltzaile zifrak hor daude eta ekonomikoki bideragarria da.

Zein da zure lana benetan?

Soldatapekoan ikus-entzunezkoen zuzendaria naiz Goienan. Lan taldean gaude irratiko, telebistako eta Interneteko lankideak. Soldatabakoan herrigintza, kultura, euskara... Behar bat moduan bizi dut proiektuetan sinestu eta militantzia lana egitea.

Zuk asmatu al zenuen “Debagoiena” esamoldea?

Formazioz irakaslea eta filologoa naiz, baina aurretik euskalduna. Eta horregatik gustatzen zait, euskalduna naizela-

ko, prakabarrenari “praka-behea” ez deitzea. Hariari tiraka, Deba Garaia ez da ezer Debagoienaren ondoan.

Arrasate inongo hiriburua ote?

Ez, Debagoiena bera hiriburu izan daiteke ze herriak batuago daude eta batuago egongo dira. Baina herrien Debagoiena dut gustukoago.

Aizu, susmoa daukat zuen Goiena hedabide-unibertso horrek funtzionatu egiten duela. Arrasate erdaldun hura: zer hintzen eta non hago!

Funtzionatu egiten du eta behar luke eredu izan beste eskualde batzuetarako. Enpresa berak kudeatuak irratia, Internet, telebista eta papera. Eskualde bakoitzean bertako euskara elkarteek gehiengoa duten kooperatiba bat... Euskarak merezi duen kalitatezko komunikazio proiektuak izango lirarteke han eta hemen, monopolioetatik ihesi eta euskara hutsean.

Kooperatibismoa ote dugu “independentzia eta sozialismoa” binomiotik gertuen dagoen toki erreala?

Autokudeaketa ekonomikoa garapen hobeago baten giltza da. Baietz esango nuke, binomio horretatik edaten duela kooperatibismoak beste eredu batzuekin konparazioan. Baina kooperatibak badu erronkarik oraindik, esaterako, enpresa demokrazian sakontzea bizitza duin baten ikuspuntua galdu barik.

Aizu, Bergaratik ikusita Lhasa (Tibeteko hiriburua) gogorazten dit Elgetak...

Elgeta Jainkoen herri? Zerutik gertuago gaude Debagoieneko edozein herri baino, baina herritarren herria izatearekin ni pozik. ■